

Datu-kazetaritzaren erronkaren sariak Open Data Bizkaia

Xedea (1. oinarria)	Open Data Bizkaiaiko datuetan oinarritutako kazetaritza-proiektuak eta, aukeran, beste iturri publikoak. Datuak behar badituzu, baten bat falta dela sumatzen baduzu edo Open Data Bizkaian akatsak antzematen badituzu, plataformaren beraren bidez edo sat@bizkaia.eus -en jakinarazi dezakezu.
Onuradunak (2. oinarria)	Pertsona fisikoak, 18 urtetik gorakoak . * banaka edo taldeka (gehienez 4 pertsona).
Kategoriak (1. oinarria 3. puntua)	Datu-bistaratzea. Datuetan funtsatutako narratiba audiobisuala (iraupena 1,5 - 5 min.). Datuetan oinarritutako kazetaritza-ikerketa. Kategoria bakoitza bere aldetik ebaluatuko da. Pertsona berak kategoria bat baino gehiagotan parte hartu ahal izango du, baina proiektu bakoitza kategoria bakarrean aurkeztu ahal izango da.
Sariaren zenbatekoa (14. oinarria)	Kategoria bakoitzean diru-sari hauek emango dira: Lehen saria: 1.500 euro Bigarren saria: 750 euro * Sariak indarrean dagoen legeriaren arabera dagozkien atxikipen fiskalak izango dituzte.
Taldeko eskaerak (5. oinarria 3. puntua)	Taldeko proiektuak eskabide batean aurkeztuko dira, eta kideen izenak adieraziko dira (gehienez 4), baina horietako batek bakarrik sinatuko du taldearen ordezkari gisa. Pertsona hori izango da erronka antolatzen duen Zuzendaritza Nagusiaren aurrean ordezkari gisa jardungo duena, bai izapideak egiteko, bai dagozkion betebeharrak betetzeko.
Aurkezteko epea (5. oinarria 4. puntua)	2026ko uztailaren 28tik 2026ko azaroaren 20ra
Emate-prozedura (9. oinarria)	Sariak emateko prozedura lehiaketa bidezkoa izango da.
Aurkezteko lekua eta modua (5. oinarria 1. eta 2. puntuak)	- Elektronikoki: Bizkaiko egoitza elektronikoa https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera «Izapideen katalogoa»: Bizkaiko Foru Aldundiaren datu-kazetaritzaren erronka. Kodea: 3104 Izapideen bilatzailea – Bizkaia.eus - Aurrez aurre: Erregistro Orokorrean – Laguntza Bulegoan, Diputazio kalea 7, Bilbo (Foru Liburutegia) edo beste edozein erregistro publikotan eta posta-bulegotan.
Dokumentazioa (6. oinarria)	Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: - Proiektua - Dokumentazio teknikoa, honako hauek barne hartzen dituena: - Erabilitako datu-iturriak. Berariaz adierazi behar da Open Data Bizkaia atariko zein datu-multzo erabili diren. - Lan-prozesuaren deskribapen laburra, bai eta datuak eskuratzeko, hautatzeko, tratatzeko, aztertze eta bistaratzean erabilitako tresna eta/edo teknikena ere.
Balorazio-irizpideak (10. oinarria)	Epaimahaia garaiz emandako eskabide guztiak berrikusiko ditu, eta berariazko irizpide batzuen arabera ebaluatuko ditu. Irizpide horiek kategoria bakoitzaren arabera aldatuko dira. - Datu-bistaratzea. - Dinamismo-maila (% 25) - Datuen kalitatea eta ulermena (% 25) - Datuen zehaztasuna eta kalitatea (% 25) - Berrikuntza errepresentazioan (% 15) - Diseinua eta erabilgarritasuna (% 10) - Datuetan funtsatutako narratiba audiobisuala. - Egitura eta narratiba (% 30) - Inpaktua eta kalitate estetikoa (% 30) - Argitasun esplikatiboa (% 25) - Datuak zehaztasunez erabiltzea (% 15) - Datuetan oinarritutako kazetaritza-ikerketa. - Informazio-helburua eta ikuspegia (% 25) - Datuen integrazioa narratiban (% 20) - Kazetaritza- eta narrazio kalitatea (% 20) - Erabilitako iturriak (% 25) - Interes publikoa eta inpaktu soziala (% 10)
Araudia	73/2026 FORU DEKRETUA , uztailaren 23koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, zeinaren bidez onesten baitira Datu Kazetaritzako Erronkaren 2026ko Sarien oi narri arautzaileak eta deialdia. (2026ko uztailaren 27ko BAO, 141. zk.).